

# ERANSKINAK

---

# 1. Eranskina: Marko Teorikoa, 4. orrialdean

---

## Guildford-ek emandako sormenaren ezaugarriak eta horien deskribapena

1- Idea jariotasuna: sortzaile ez denak oraintxe pentsatu duenari heltzen dio eta konforme geratzen da gehiago pentsatu behar ez duelako. Pentsatzaile sortzaileek, aldiz, etengabeko ideien fluxu bat izaten dute. Pentsamendu batek hurrengoa ekartzen du.<sup>1</sup> Asko pentsatu duenari, irakurtzen edo entzuten duen edozein pentsamendu berri kate itxurarekin heltzen zaio, hots, ideia aberastasuna.

Horrez gain, pentsatzaile sortzaileak, bueltak ematen ditu bere baitan irtenbide egokiarekin eman arte. Bide horretan, ez da soilik loturen jariotasunetik lagundua izaten, baizik eta pentsamenduaren jokia errazten duen hitz jariotasunetik ere bai.

2- Malgutasuna. Ideiak eremu batetik bestera pasa daitezke bizkortasun eta maiztasun handiagoarekin. Arazoaren irtenbidea bistan daukate beti, gainera, zenbait planteamendu posible aldi berean jarraituz, horietako bakar batera heldu gabe.

Saiatzen da ideia horiek egoera arruntean daukaten testuingurutik askatzen, estuki ezarritako pentsamendu batzuen sistematika eta logika ahaztea beste pentsamendu espontaneoago, aberatsago, analogiko eta metaforikoagoen mesedetan.

3- Originaltasuna. Originala den gizakiak usaimen berezia du oraindik pentsaezina denerako. Badauka arduragabetasuna debekuenganako eta tabuekiko. Besteek uzten duten puntuan hasten da gogoeta egiten, eta abantaila horrek pentsatzaileari ziurtasun zeinua ematen dio. Gainerakoek ziurtasun hori izatea nahiko zuten, horregatik obra originalen hainbeste kopia daude.

4- Definizio berriak eratze gaitasuna. Gizaki sortzaileek azkartasun eta erraztasun handiagoarekin hausnartzen dute, <<lotura funtzionalen>> gaineratik pasatzen.

---

<sup>1</sup> Nietzsche-k bere liburuan "Gizaki, gehiegizko gizakia" azaltzen duen bezala


Todo hombre que desee comprenderse a sí mismo y comprender su vida, debe tener una determinada dosis de creatividad. Sin ella, permanece encadenado a hábitos e impulsos incomprensibles, de los que es incapaz de salir. Pero quien es capaz de superar estos condicionamientos previos de su yo, es creador en el sentido de autorrealización. Es el proceso de definirse de nuevo. (Matussek, 1997: 52)

5- Arazoetarako sentsibilitatea. Sortzaileek gauzak eta lotura kausalak erraztasun handiagoarekin “arazotu” ditzakete. Ez sortzaileek baino arreta gehiago eskaintzen diete gauza ez arruntei, eta haien fantasia errealitatetik desberdintzeko eta ñabardurak egiteko sentsibilitate handiagoa daukate.

Einsteinek zioen arazo berriak eta konponbide berriak aurkeztu behar direla, eta arazo zaharrak birkontsideratzea ikuspegi berri batetik, horrek guztiak sormenezko indar sortzailea behar du, eta zientziaren benetako progresioak markatzen ditu. Eta ez soilik zientzian, “*el futbolista que crea juego adivina lo que va a venir, las siguientes jugadas*”<sup>53</sup>).

## 2. Eranskina: Marko Teorikoa, 6. orrialdean

### Irving A. Taylor (1959) autoreak osatutako sormenaren eskema



## 3. Eranskina: Marko Teorikoa, 6. orrialdean

---


### Henry autorearen ikuspegia Proiektuen Bidezko Ikaskuntzan

Henry (1994: 49) autoreak apuntatzen duen moduan, proiektuek mesede egiten diete ikasleen kompetentziei, hurrengo aspektuekin loturikoak:

- 1- Norberaren identitatearen eraikuntza.
- 2- Kritikotasuna ezarritakoaren, inplizituaren eta forma kanonikoetan transmititutako botere ereduaren interpretazioaren eta analisiaren aurrean.
- 3- Autobideraketa, norberaren ekimena sustatzen duena indagazio, antolakuntza eta ikerkuntza prozesuan era indibidualean garatzeko orduan.
- 4- Asmamena, erabilpen sortzailearen bitartez (parte hartzaileen elkarrizketatik abiatutako aldizkako bideen esplorazioa eta bilaketari dagokionez) liburuetan agertzen diren baliabide, metodo eta azalpenen aldizkatzeak aurkitzea.
- 5- Planteamendua eta arazo ebazpena, gertaeren diagnostikoa eta estrategia analitikoaren garapena, interpretatzaileak eta ebaluatzaileak.
- 6- Integrazio kontzeptuala, ideien, esperientzien eta iturri eta diziplina desberdinen informazioaren sintesiari mesede egiten diona.
- 7- Erabaki hartzeak, ikerkuntzarako garrantzitsua dena aukeratu beharko baitu, baita proiektuan sartu beharrekoa ere hori komunikatzeko.
- 8- Komunikazio interpersonala, besteen ikuspegi eta iritziei erantzun beharko baitie, eta haien arduradun bihurtu idazmenaren edo bestelako jardueren errepresentazioaren bitartez.

## 4. Eranskina: Marko Teorikoa, 11. orrialdean

Saturnino de la Torre eta Verónica Violant-en “Estrategias Creativas en la Enseñanza Universitaria” liburuan agertzen den irakaslearen eta ikasleen ebaluazioa



## 5. Eranskina: Marko Teorikoa, 11. orrialdean

Saturnino de la Torre eta Verónica Violant-en “Estrategias Creativas en la Enseñanza Universitaria” liburuan agertzen diren arte mota ezberdinak eta horiek ebaluatzeko taula

| Tipo       | Area  | Fuente principal | Nivel         |
|------------|---|------------------|---------------|
| Artística  | Pintura<br>Música<br>Literatura<br>...                    | Arte             | Expresivo     |
| Pragmática | Hogar<br>Trabajo<br>Sociedad                              | Experiencia      | Práctico      |
| Científica | Ciencias sociales<br>Ciencias naturales<br>Otras ciencias | Ciencia          | Investigación |

Cuadro 5.—Clases de creatividad.

| Alumno     |      | Ciclo                           |       | Curso |   |   |   |  |
|------------|------|---------------------------------|-------|-------|---|---|---|--|
| Area       | Fase | Aspectos                        | Grado |       |   |   |   |  |
|            |      |                                 | 1     | 2     | 3 | 4 | 5 |  |
| ARTÍSTICA  | I    | Motivación<br>Sensibilidad      |       |       |   |   |   |  |
|            | II   | Emotividad<br>Flexibilidad      |       |       |   |   |   |  |
|            | III  | Espontaneidad<br>Fantasía       |       |       |   |   |   |  |
|            | IV   | Elaboración<br>Reflexión        |       |       |   |   |   |  |
|            | V    | Optimismo<br>Respeto            |       |       |   |   |   |  |
| PRAGMÁTICA | I    | Curiosidad<br>Disposición       |       |       |   |   |   |  |
|            | II   | Manipulación<br>Autodisciplina  |       |       |   |   |   |  |
|            | III  | Imaginación<br>Organización     |       |       |   |   |   |  |
|            | IV   | Tolerancia<br>Escuchar          |       |       |   |   |   |  |
|            | V    | Autoevaluación<br>Implicación   |       |       |   |   |   |  |
| CIENTÍFICA | I    | Iniciativa<br>Preguntar         |       |       |   |   |   |  |
|            | II   | Persistencia<br>Responsabilidad |       |       |   |   |   |  |
|            | III  | Invencción<br>Estrategia        |       |       |   |   |   |  |
|            | IV   | Crítica<br>Autonomía            |       |       |   |   |   |  |
|            | V    | Autoestima<br>Cooperación       |       |       |   |   |   |  |

Cuadro 6.—Ficha para evaluar al alumno.  
(Perfil creativo.)

## 6. Eranskina: Metodologia, 13. eta 14. orrialdetan

---

### Metodologia bakoitzaren oinarriak eta aukeratzearen zergatiak

Hasteko, bai Adimen Anitzen teoria bai Proiektuen Bidezko Ikaskuntza, biak marko teorikoan planteamendu bezala agertu zaizkigun bitartean, Oinarrizko Gaitasunak, gure egunerokotasunean indarrean dagoen sistema bat da, Europar Batasuneko Erreferentzia Markoan (2006-09) gauzatutakoa. Sistema hau nire lanean sartzea erabaki dut, izan ere, ikasterako orduan umearen osotasuna garatzea bilatzen duela pentsatzen dut, eta, hori izanda nire asmo garrantzitsuenetariko bat, zergatik ez aprobetxatu hain hurbil daukagun metodologia bat?

Honi buruzko hainbat eta hainbat definizio badaude ere, Curriculum aintzat hartuta, honela azalduko nuke oraingoan: Gaitasuna testuinguru jakin batean, eraginkortasunez, zereginak edo atazak burutzeko zein askotariko egoerei aurre egiteko ahalmena edo trebetasuna da. Horretarako, jarrerak, abileziak eta ezagutzak, aldi berean eta elkarri loturik, baliatu behar dira.

Gaitasun multzo honen helburuak hurrengoak lirateke: ikasleak pertsona giza haztea, hiritartasun aktiboa landu eta garatzea, helduarora arrakastatsu heltzea eta bizitza osoan zehar etengabe ikasten jarraitzea.

Azkenik, EAEko Curriculumeko Oinarrizko Gaitasunak zeintzuk diren gogoraraziko ditut: Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, Matematikarako gaitasuna, Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna, Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna, Ikasten ikasteko gaitasuna, Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna, Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna, Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna

Bigarrenez, H. Gardner-en Hezkuntza ulertzeko planteamendu iraultzailea hartu nahi izan dut nire metodologia propioan erreferentziatatzeko. Mendebaldeko eta jada ia mundu mailako hezkuntza sistema gehienek ikaslearen aspektu batzuk bakarrik garatzen arduratzen diren bitartean, hots, matematika, hizkuntzak eta gizarte eta



ingurune arloetako ezagutzak, Adimen Anitzen Teoriarekin, edozein ikaslek, eta edozein izanda honen trebetasunak, lekua dauka Hezkuntzan.

Beraz, ez dut nahi justifikatu gabeko arrazoiengatik ikasle liluragarriak Hezkuntzatik at gelditzea, ziur nagoelako ikasle bakoitzak hainbat talentu eskaini diezazkiokeela gure gizarteari. Baina horretarako, agian ezta haiek ere dauzkatela ez dakizkiten abilezia horiek atera beharko ditugu, horretarako ezin hobea ikusten dudalarik Gardner jaunaren planteamendua: Denok dauzkagu adimen guztiak, batzuk besteak baino garatuago egon daitezkeelarik.

Bukatzeko, teoria honetan aurkitzen ditugun adimen motak gogora ekarriko ditut: Hizkuntza adimena, adimen logiko matematikoa, adimen musikala, adimen zinetiko-korporala, adimen espaziala, pertsonarteko adimena, pertsona barneko adimena, adimen naturalista eta adimen emozionala.

Hirugarrenez, eta erreferentzia gisa hartu ditudan oinarri metodologikoei amaiera emateko, Proiektuen Bidezko Ikaskuntza aukeratu dut nire lanarengan pisua izateko. Nire hautaketan sartzearen arrazoa ondorengo izango litzateke: Umeen berezotasuna errespetatzen duelako eta ezagutzaren arloak zatikaturik eman beharrean, agertzen diren heinean ikastea proposatzen duelako; horretarako libururen erabilpenik ukatzen duelarik eta ikaskuntzarako oinarri bakarra ikasleen beharrak eta interesak direlarik.

Hortaz, gogoratuko ditugu zeintzuk ziren ikaskuntza eredu honen oinarrizko ezaugarriak: Egiatzko esperientzia eta ikasleen interesak, prozesuaren testuinguru izatea; elkarlanean eginiko zerbaiten bidezko ikaskuntza garatzea; jarduera, elementu eragiletzat hartzea prozesu osoan barrena; eta prozesuaren perspektiba globalizatzaile eta diziplinartekoa ezartzea.

## 7. Eranskina: Metodologia, 13. eta 14. orrialdetan

---

### Zazpi faseekin zein zazpi arloekin lantzen diren Oinarrizko Gaitasunak eta adimen motak

a) Prozesuaren atalak:

1-Harritu: Lehenengo fase honetan adimen emozionala sartzen da, izan ere, haiengan zenbait sentimendu piztea eragin nahi dugu hasierako arreta bat ezartzeko hurrengo faseetara begira. Beste aldetik, haien kuriositatearekin elkarreraginean egon nahi badugu ere, ez da, berez, gaitasunik abian jartzen.

2- Ulertu: Bigarren fasean jada adimen intrapertsonalari eragin nahi diogu, hasieratik haien buruekin elkarreraginean egoteko eta konexio hori ez galtzeko prozesu osoan zehar, norberari galderak eginez edota prozesu osoan zehar hausnartzen ibiliz “nola ez dut hori lehenago pentsatu?”, “zaila ematen zuen baina hori nik ere egiteko kapaza naiz,” etab. Atal honetan, ikasleak Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunean trebatzen ariko lirateke gauzen azalpenak jasotzen doazen heinean, baita Informazioa tratatzeko gaitasuna ere.

3- Txunditzea: Ikasleak txundituz, elkarreraginezko giro etengabea ematen da, non adimen emozionalak, intrapertsonalak zein interpertsonalak parte hartzen duten. Motibazio horrek ikasten ikasteko gaitasunarekin lotura zuzena ez badu ere, horretara bultzatzen ditu ikasleak oso era eraginkorrean, azkenean norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna sustatzen delarik.

4- Parte izan: Adimen interpertsonala garatzen jarraitzen dugularik, ikasleen Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna ere lantzen arituko ginateke. Gainera, atal honetarako aintzat hartu genezake Bronferbrenner Hezkuntzaren Teoria Ekologikoa<sup>2</sup>, ikasleak haien artean lan egitean, eskolatik komunitatera ateratzean edota haien kulturarekin harremanetan egotean haien zentro erradioaren diametroa areagotzen ariko liratekeelako.

---

<sup>2</sup> Gizabanakoaren inguruko erradio ezberdinak bereizten dira: MICROsistema (familia eta eskola), MESOsistema (familiaren eta eskolaren arteko erlazioa), EXOsistema (auzoa, komunitatea, telebista eta internet) eta MACROsistema (kultura, baloreak, arau sozialak, etab.)

5- Gonbidatu: Aurreko gaitasunei eta adimen motari adimen emozionala zein pertsonaren barruko adimena gehituko genizkioke atal honi.

6- Komunikatu: Honetan ere, adimen emozionala zein pertsonen arteko adimena garatzen da, alde batetik. Beste batetik, Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna eta Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna lantzen dira atal honetan, norberak bere pentsamenduak antolatzen jakin behar dituelako zein horiek transmititzeko kapazitatea izan, baita ere.

7- Sortu: Sortzeko, adimen mota guztiak elkarlanean dabiltzala esan daiteke, hortaz, guztiei egingo diegu erreferentzia atal honetan Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasunarekin batera.

b) Prozesuaren jorratzeko gaiak:

-Literatura: Arlo honetan, adimen linguistikoa garatzeaz gain, Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna lantzen ariko dira ikasleak.

-Zinema: Sentimenduen trataerarekin ikasleek adimen emozionala lantzen ariko dira grabatu bitartean, eta batez ere Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna, bideoa eratzeko ordua heltzen denean, baita bloggean bertan aritzerakoan ere.

-Musika eta dantza: Arlo honetan noski, adimen musikala lantzen ariko ginateke, baita adimen zinetiko korporala ere, are gehiago, adimen espazialaz hitz egin genezake ere. Gaitasunei dagokionez, Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna garatuko litzateke jarduera mota hauekin.

-Antzerkia: Adimen intrapertsonalaz gain, zinetiko korporala edo kinestesikoa aipa genezake baita ere, haien bien artean adimen emozionala garatuko litzatekeelarik. Gaitasunei dagokienez, batez ere Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna landuko zen, jarraian, Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna, eta azkenik, Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna.

-Pintura, arkitektura eta eskultura: Adimen espaziala eta logiko matematikoa lantzeaz gain, azken finean eskalekin eta proportzioekin ariko baitira ikasleak, taldean lan egitearekin batera, adimen interpertsonala garatzen ariko direla azpimarratu beharko

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

litzateke. Horrez gain, Matematikarako gaitasuna eta Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna aipa genitzake jarduera multzo honetan.

-Argazkigintza: Adimen naturalista sustatu nahi da jarduera mota honekin, azkenean naturarekin kontaktuan egonda, hori ez ezik, Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna landuko litzateke, kamara erabiliz, Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna, eta azkenik, norberaren lana aurkezteko orduan, Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

-Asteko arazoa: Adimen logiko-matematikoa landuko litzateke atal honetan, baita adimen intrapertsonala zein interpertsonala era bai, bakoitzak bere buruarekin zein gainerako taldekideekin lanean aritu beharko lukeelarik. Gainera, matematikarako gaitasuna eta Ikasten ikasteko gaitasuna garatuko lirateke ikasleak taldean egonda arazoa konpontzeko bide ezberdinak eraikitzen doazelarik.

## 8. Eranskina: Lanaren Garapena, 17. orrialdean

---

### Eskolaren ezaugarriak, zerbitzuak eta aukeratutako ikasgelaren hurbilketa orokorra

#### a) Eskolaren ezaugarriak

Bilboko auzo homonimo batean kokatutako hezkuntza zentroa da, izaera publikoa duena eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ereduak eskaintzen dituena, etapa bakoitzeko bi eraikin eskaintzen dituelarik eta klaseko batz bestekoa 20 ikasle direlarik.

Eredu linguistikoari dagokionez, eskolak soilik D ereduak eskaintzen du, hala ere, oraindik gelditzen dira hondar klaseren bat B ereduak (3.B, 4.B eta 5.B) B izaten hasi zirenak eta jarraitzen dutenak izaten.

Kultura aniztasun handia dago eskolan, izan ere, ijitoen etnia nagusitzen da, hala ere, jatorri desberdinetako umeak daude: marokoarrak, boliviarrak, ekuatortarrak, afrikarrak, etab. eta aurkitu dezakegun maila sozio-ekonomikoa, gehien bat, ertain-baxua da. Are gehiago, gurasoei liburu berriak erostea suposatzen duen gastua dela eta, Hezkuntza Sailak martxan jarri zuen “Liburu Solidarioak” programa, zeinen bitartez, 4 urtetik behin liburu aldaketa egoten da eta horretan ikasleek ondorengoko beste ikasleei igaro behar dizkiete haien liburuak behin erabilia kurtsoan zehar.

Eremu sozio-linguistikoari dagokionez, berriz, familien gehiengo erdaldunak dira, euskararen erabilera baztertuta uzten. Nahiz eta gurasoren batek euskaraz jakin, ia inork erabiltzen du etxean umeekin. Honen frogak izan ohi da ikasgela, non, ume gehienek gaztelera erabiltzen duten haien artean komunikatzeko edota batzuetan irakasleriari zuzentzeko, nahiz eta haiena D ereduak izan.

Eskolako hezkuntza ereduak bi oinarri nagusi ditu:

*“1.- BALORE ETA GAITASUNEN GARAPENEAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA. Gure eskolak hezkuntza ereduak gaitasun eta baloreen garapenean oinarrituta dago. Haurra bere osotasunean hartzen du ardatz eta haren arlo guztien garapena lortu nahi du:*

*gogamena, gorputza, afektibitatea, norberaren identitatea eta giza-harremanen eremua.*

*Hezkuntza ereduak curriculumaren arlo guztiak bideratzen ditu. Horrez gain, eskolak arlo berezi bat diseinatu du: Norberaren Garapeneko arloa. Horren bidez zenbait balore eta jarrera eraikitzen lagundu nahi diegu gure ikasleei eta giza-hezkuntza oso bat eskaini.*

*Gure ikasleei prestakuntza akademiko eta kultural zehatz, eguneratu eta kalitatezko bat eskaini nahi diegu, baina hori guztia ez litzateke nahikoa izango baloreetan oinarritutako giza-hezkuntz sendo baten ardaztuta egongo ez balitz.*

## 2.-HEZKUNTZA ELEANITZA

*Gure hizkuntz proiektuak euskara indartzen du gure ikasleen ikasketa hizkuntza bezala eta baita komunikazio hizkuntza bezala ere. Gure eskolako haurrak B eta D ereduetan eskolaratuta daude eta lau urterekin ingelesa ikasten hasten dira.*

*Horrekin guztiarekin hauxe lortu nahi dugu:gure ikasleak elebidunak izan daitezen, ikasketak euskaraz gaitasunez egin ditzaten eta ingelesaren ezagupen zabala izan dezaten.*

*Ikastetxeak esperientzia luzea du arlo honetan eta urterik urte hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerarekin zerikusia duten eta bereziki euskara indartzeko hainbat proiektu eta ekintza garatzen ditu (Jostamintza, eskola-irratia, ...)"*

### b) Ikastetxeko azpiegiturak eta zerbitzuak

Lehen esan dugun bezala, bi eraikin desberdin bereiz daitezke, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako. Kasu honetan, bigarrenari buruzko datuak azalduko ditut, errekurtsioengandik hasita.

Errekurtsio materialei eta pertsonalei dagokionez, aniztasun handia aurki dezakegu. Lehenengoei dagokionez, nabarmentzen da psikomotrizitateko gela, frontoia, bi gimnasio, laborategia, bi liburutegi (bat lehenengo ziklorako eta bestea gainerako zikloetarako), jantokia, eskola garraioa, goizeko gela ( ordutegiz kanpoko, klaseak hasi baino ordu bat lehenago eskuragarri dagoen gela bat dago, goizegi lanera joan behar

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

du ten gurasoek seme-alabak bertan utzi ahal izateko, zaintzen egongo den norbaitekin) eta informatikako gela bat. Gainera, 3.zikloko gela bakoitza arbela digital batekin dago hornituta, baita ikasle bakoitzeko netbook batekin (Eskola 2.0). Gainera, azpimarratzekoa da eskolak duen irrati zerbitzua, urte asko daramana indarrean “Txepetx Irratia” eta auzo osoan entzun daitekeena.

Gainera, eskolaz kanpoko ekintzen zerrenda luzea dago: Musika (3 urtetik aurrera), Txiki-ritmo (3 urteko umeak soilik), Antzerkigintza (4 eta 5 urte eta 1. eta 2. mailan), Euskal Dantza (5 urtetik aurrera), Xakea (1. mailatik aurrera), Bertsogintza (3. mailatik aurrera), Txistua (3. mailatik aurrera), Ingelesa Ludikoa (4 urtetik aurrera), Saskibaloia (3. mailatik aurrera), Eskubaloia (3. mailatik aurrera)-Bosteko Futbola (3. mailatik aurrera), Karatea (5 urtetik aurrera), Mendia (3. mailatik aurrera eta hilero igande bat), Multikirola (3. mailatik aurrera), Dantza Modernoa (3. mailatik aurrera) eta Patinajea (1. mailatik aurrera).

c) Ikasgelaren Ezaugarriak:

3D2 ikasgelako umeak lehenengo mailatik egon dira ohituta klase magistralei, eskaini zaien jolasteko tartea oso murriztua izanik. Hori sinestea zaila da, kontuan izanda 8-9 urteko haurrak direla azken finean.

Hortaz, ez dute maiz erabili talde lana inplikatzeko duten metodologiarik edo irakaskuntza eredurik. Horrez gain, marrazteko ordua heldu zaienean, beti eman dizkiete marrazki eginak, gainera estereotipoz beterikoak, eta horrekin zaila litzateke haien sormena garatzea.

Ezaugarri horienatik guztiengatik erabaki dut klase hau izatea nire proiekturako objektu. Izan ere, ikasle hauentzako guztiz berria izango den metodologia bat eramango da aurrera, non haiek ikusiko duten benetako protagonistak, edukiak baino, haiek direla.

## 9. Eranskina: Lanaren Garapena, 18. orrialdean

### Irakaskuntza-plangintzaren taula: Ezagutzaren arloa

|                   | Kanpo Espazioa  | Leku ezberdinak   | Dimentsioa  |
|-------------------|---|---|---|
| Ikasle kopurua    | Zortzi ikasle guztira   | Sei ikasle guztira  | Sei ikasle guztira  |
| Erabakitako izena | Sateliteak  | Esploratzaileak   | Bosgarren Dimentsioa  |
| Helburuak         | <p>-Gure sistemako zeruko gorputzak ikastea eta zeruan ikusiz gero horiek identifikatzea.</p> <p>-Talde lanean ondo aritzea; ekimena erakustea eta lorpenak konpartitzea.</p> | <p>-Geografiaren atal desberdinak lantzea eta aztertzea.</p> <p>-Geografia fisikoan eta politikoan barneratzea batik bat ibaiak, mendikateak eta hiriburuak ikasiz.</p> <p>-Klima eta landaredia aztertzea eta munduko leku ezberdinen arteko konparaketak egin ahal izatea.</p> <p>-Ikusitako ingurune aniztasuna gurearekin alderatu eta ondorioak ateratzea.</p> <p>-Desberdintasun horiei arrazoiak bilatzea.</p> | <p>-Dimentsio maila ezberdinak ikastea.</p> <p>-Magnitudeak barneratzea.</p> <p>-Tamaina ezberdineko objektuak neurtzeko unitateak zentzudunez aukeratzen jakitea.</p> <p>-Taldean aritzea eta magnitudeak edozein gaiari lotzeko gai izatea.</p> |
| Gaitasunak        | Zortzi gaitasunak landuko dira.   | Zortzi gaitasunak landuko dira.   | Zortzi gaitasunak landuko dira.   |
| Edukiak           | -Eguzki-sistema, Eguzki- Ilargi- eta Lurra- sistema,  | -Mapen interpretazioa lantzea eta   | -Magnitudeak, unitateak eta hiru dimentsioak(K)   |



|                             |   |   |  |
|-----------------------------|---|---|--|
|                             | <p>zeruko gorputzak, izarrak eta konstelazioak(K)</p> <p>-Oinarrizko astronomia eta astrologiaren hurbilketa txikia(P)</p> <p>-Taldean jarduten ikastea, errespetuz eta laguntasunez(J)</p>   | <p>barneratzea eta Brujularen erabileran trebatzea(P)</p> <p>-Geografiaren atalak ikastea eta munduko leku ezberdinetako klima eta landaredia ezagutzea(K)</p> <p>-Aurrekoen arteko konparazioak egiten jakitea(P)</p> <p>-Herralde eta hiriburu "garrantzitsuen" izenak jakitea(K)</p> <p>-Talde lanean aritzen jakitea eta mapen marrazketarekiko interpretazio kritikoa egitea, mendebaldeko eredutik askatuz(J)</p> | <p>-Edozein gauza fisiko neurtzeko baliabideak aurkitzen jakitea(P)</p> <p>-Neurtu ezin daitezkeen gauzen edota sentimenduen azterketa egitea zergatik ezin diren neurtu aztertuz(J)</p>   |
| <p>Ebaluazio Irizpideak</p> | <p>-Edukiak ondo barneratu dituzten.</p> <p>-Taldean ondo aritu diren.</p> <p>-Jakin mina eta interesa erakutsi duten.</p> <p>-Ekimena aurkeztu duten.</p> <p>-Errespetuz aritu badira eta berezkotasuna izan duten edozein zalantza edo ekintzarekiko.</p> | <p>-Geografiaren atal ezberdinak ezberdindu eta identifikatzeko gai izatea.</p> <p>-Ibaiak, mendikateak eta herralde eta hiriburu garrantzitsuak jakitea.</p> <p>-Mapen interpretazioa eta Brujularen erabilera menperatzea.</p> <p>-Taldean jarduteko zein azterketa kritikoa garatzeko gaitasuna garatuta izatea.</p>   | <p>-Dimentsioen mundua ezagutzen dute eta magnitude ezberdinak dakizkitez, baita horiek neurtzeko unitateak ere.</p> <p>-Neurtu daitezkeen gauzak neurtzen badakitez.</p> <p>-Neurtu ezin daitezkeen gauzen inguruko hausnarketa egiteko kapazak dira.</p> |

## 10. Eranskina: Lanaren Garapena, 21. orrialdean

### Irakaskuntza-plangintzaren taula: Sormenaren arloa

|                      | 1. Taldea  | 2. Taldea          | 3. Taldea         |
|----------------------|--|--------------------|-------------------|
| Ikasle Kopurua       | 7 ikasle guztira   | 7 ikasle guztira   | 6 ikasle guztira  |
| Erabakitako izena    | Dragoiaren Suhiltzaileak   | Kosmosaren Lagunak | Pijama Hegalariak |
| Helburuak            | -Zazpi arloetako eginkizunak arrakastaz betetzea eta denboraren baliabidea ondo aprobetxatzea.<br>-Sormenaz baliatzea eginkizun originalak betetzeko.<br>-Talde lanean aritzea, lehen baino gehiago, bakoitzak ezagutza desberdinak barneratu izan dituelako aurreko prozesuan zehar.<br>-Prozesuan zehar disfrutatzea lan handia gustura egiten den bitartean.  |                    |                   |
| Gaitasunak           | Zortzi gaitasunak landuko dira.  |                    |                   |
| Edukiak              | -Aurreko atalean landutako eduki berdinak, horiek haratago eramanez eta prozesuan zehar ager daitezkeen eduki gehigarriak kontuan izanez. (K)<br>-Zerotik hasita orden batean aurrera egitea, ideien tartea errespetatuz gerora horien trataerara igarotzeko eta azken emaitza baloratzeko. (P)<br>-Tartean agertzen diren ideien ustiapen egokia. (P)<br>-Talde lanean aritzea osotasun bakar bat balitz moduan, taldearen arrakastak norberaren arrakasta suposatuko duela ulertuz.(J) |                    |                   |
| Ebaluazio Irizpideak | -Idea originalak izatea<br>-Norbanako ekimena erakustea eta inori ez kopiatzea<br>-Proposamen jarriotasuna<br>-Aurrera eramate arrakastatsua<br>-Esperimentatzeko grina<br>-Taldearen ongizatea bilatzea<br>-Gauzak ondo egiteko eta taldearekiko erantzukizuna azaltzea<br>-Azken emaitza baloratzeko<br>-Independentzia mailaren areagotzea nabaritzea<br>-Prozesu beraren gozamina dastatzea  |                    |                   |

